

## **PROPOSAMENA, EUSKOTRENEK OBREN JARRAIPENA EGITEKO BATZORDE EZ-IRAUNKORRA SORTZEKO**

Reyes Carrere Zabala EH BILDU udal taldearen bozeramaileak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 90., 91. eta 148. artikulua oinarri, **Euskotrenek obren jarraipena egiteko BATZORDE EZ-IRAUNKORRA sortzeko PROPOSAMEN** hau aurkezten du.

Bide azpiegituren erakunde kudeatzailea Lugaritz-Kontxa, Kontxa-Easo eta Easo-Morlans zatiak garatzen ari da. Ukaezina da obra horiek eragin handia dutela hiriaren funtzionamenduan, besteak beste hiriko bide garrantzitsuetan eragiten dutelako edo eragingo dutelako. Hain zuzen, erasanak izango dira mugikortasunean, garraio publikoan, merkataritzan, egoiliarren egunerokan...

Hori horrela, 2012ko azaroan, obrei, intzidentziei, kexei eta haren inguruan sor litezkeen behin-behineko egoerei buruzko informazioa izateko, EH Bildu udal taldeak proposatuta, eta udal talde guztien laguntzarekin, erabaki zen batzorde ez-iraunkor bat sortzea Euskotrenek Donostialdeko obren jarraipena egiteko.

Era berean, 2015-2019 agintaldian, berretsi zen komenigarria-beharrezkoa zela batzorde ez-iraunkor hori, eta, horregatik, berriz sortzea erabaki zen. Hala ere, orain arte, agintaldi honetan ez da proposatu berriz sortzea, nahiz eta oraindik asko diren horri lotutako kontuak.

Horregatik guztiagatik, **EH BILDU** udal taldeak **BATZORDE EZ-IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMEN** hau aurkezten du, **EUSKOTREN DONOSTIAN EGITEN ARI DEN OBREN JARRAIPENA EGITEKO:**

### **- Helburua:**

Euskotren Donostian egiten ari den obren eta intzidentzien jarraipena egitea, planteatzen diren kexak edo aldaketak aztertzea, bai eta horren eraginak eta horiek gutxitzeko hartu beharreko erabakiak ere.

**- Osaera:** udal talde bakoitzeko kide bat. Botoa haztatua izango da.

**- Iraupena:** 36 hilabete.

**- Bileren araubidea:** Gutxienez bi hilabete behin egingo da.



EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Donostia, 2019ko irailaren 6a

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldearen bozeramailea.